

**EUSKO JAURLARITZAREN 2016ko
AURREKONTUAK:**

**GASTU SOZIALAREN AURRETIK
ZORRA ORDAINITZEA LEHENETSI**

2015/11/18

1. ZERGA-POLITIKA ALDATZEA BAZTERTU ETA POLITIKA NEOLIBERALAK ONTZAT

EMATEN DIRA

Eusko Jaurlaritzaren 2016rako aurrekontu-proiektua aurrez hartutako bi erabaki politikok zedarritzen dute: batetik, hiru Foru-Aldundiek eta Jaurlaritzak (guztiak ere EAJren esku) Finantzen Euskal Kontseiluan (FEK) erabakitako diru-bilketa aurreikuspenak, eta bestetik, Jaurlaritzak Rajoyren Gobernuarekin defizit publikoari buruz sinatu duen akordioa, zeinaren arabera hura 2016an %0,3raino jaitsiko den.

FEKen akordioaren arabera, EAEn 13.498 milioi euro bilduko direla aurreikusten da datorren urtean. Diru hau administrazio guztien artean banatu behar da. Bilduko den diruari buruzko aurreikuspen hau oso urria da, eta horrenbestez, murrizketa testuinguru batean azken urteetako aurrekontu-politika berak aplikatzera zigortzen gaitu.

Gainera, aurreikuspen hauekin berariaz baztertzen da bestelako zerga-politika bat egiteko aukera. Baliabide publikoak ez dira zerutik jausten; aitzitik, zerga arloan hartzen diren erabakien arabekoak izan ohi dira. Hain zuzen, EAEko zerga-politikak egundoko iruzur fiskal maila egotea ahalbidetzen du eta zerga gutxi ordainarazten die errenta altuei, enpresei eta kapitalari; honek baliabide publikoen mailari kalte egiten dio eta erregimen fiskal injustua iraunarazten du. Europar Batasuneko azken postuetan gaude zerga-presioari dagokionez, eta honek eragin zuzena du hainbat arlotako gastu urrian, esaterako osasuna, hezkuntza, gizarte-prestazioak, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, etab.

2. GASTU PUBLIKOAK EKONOMIAN DUEN ZATIA MURRIZTU EGIN DA

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektuak **10.582,8 milioi euroko** gastua aurreikusten du (kopuru hau lortzen da aurkeztutako 10.933 milioi eurori Jaurlaritzak abiadura handiko trenara irazteko aurreratzen dituen 350,5 milioiak kenduta; zenbateko hau espainiar Gobernuak aurrerago itzuliko baitu).

Zenbateko hau **BPGd-aren %14,8** da, hots, Jaurlaritzak egingo duen gastua 2016an Euskal Autonomia Erkidegoan guztira sortuko den 100 eurotik 15era ez da iritsiko. Gastua BPGd-arekin alderatzeak aukera ematen digu Jaurlaritzaren gastuak ekonomiarekiko zein bilakaera duen aztertzeko; beraz, oso interesgarria da gobernuak gastu publikoan egiten duen ahalegina neurtzeko.

Azken urteetan Eusko Jaurlaritzak gastu publikoari buruz hartutako erabakia murriztea izan da. Krisi ekonomikoaren azken urteei erreparatuz gero, exekutiboak gastu publikoa gutxitu egin du, krisiaren aitzakiarekin. Zehazki, gastu publikoa 2009an BPGd-aren %15,5 izatetik 2016an %14,8raino jaitsi da. Honek zer esan nahi du? Jaurlaritzak **500 milioi gutxiago** gastatuko dituela, 2009an egin zuen ahaleginari eusteko jarri beharko lukeen kopuruaren aldean.

1. TAULA: EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA (MILIOI €TAN ETA BPGd %)
2009-2016 (*)

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<i>Milioi €</i>	10.254,5	10.160,5	9.954,9	9.898,7	9.240,1	9.826,7	10.134,5	10.582,8
<i>BPGd %</i>	%15,5	%15,0	%14,6	%14,8	%14,0	%14,7	%14,7	%14,8

Iturriak: Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarra, Eustat

() Kopuru homogeneotan: AHTrak bideratutakoa kenduta; 2011tik hona, enplegu-politika aktiboak kendu beharko lirateke, zeinei buruz ez dugun informaziorik.*

Gainera, nabarmentzekoa da 2015rako onartu zen aurrekontuak BPGd-aren %15eko gastua aurreikusi zuela, hots, 10.288,4 milioi euro. Horrek esan nahi du Jaurlaritzak 2015ean aurrekontuan jasota zeukana baino 154 milioi gutxiago gastatuko duela (BPGd-aren 3 hamarren).

3. ZOR PUBLIKOA ETA BERE KOSTUAREN HAZKUNDE ESPONENTZIALA

Kontua da Eusko Jaurlaritzak bere ardurapeko arloetara bidera ditzakeen baliabideei dagokienez bilakaera askoz okerragoa izan duela arestiko aurrekontuak pentsa arazi dezakeena baino. Izan ere, zor publikoaren ordainak egundoko igoera izan baitu.

2. taulan ikus daitekeenez, **zor publikorako gastuak** hazkunde esponentziala izan du azken urteetan, gehitu egin baitira amortizazioa (aurretik maileguan hartutako kapitala itzultzea) zein interesak. 2009ko ekitaldiko 83,6 milioi euroak **ia 14 bider gehitu dira**, zorrari dagokion gastua 1.170,1 milioi euroraino puztuta. Bitartean, EAeko aurrekontua, zorraren eta AHTaren ordaina kenduz gero, beheranzko joeran dago.

2. TAULA: EUSKO JAURLARITZAREN URTEKO GASTUA ZOR PUBLIKOAN


(MILIOI €TAN ETA GUZTIRAKO GASTUAREN %) 2009-2016

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<i>Amortizazioa</i>	61,2	123,7	169,5	174,5	199,9	479,5	686	892
<i>Interesak</i>	22,5	74,3	143,4	190,3	213,0	245,5	226,5	278,1
<i>Guztira</i>	83,6	198,0	312,9	364,8	412,9	724,9	912,5	1.170,1
<i>Zorraren % aurrekontuetan</i>	%0,8	%1,9	%3,1	%3,7	%4,5	%7,4	%9	%11,1
<i>Aurrekontua, ken zorra eta AHT</i>	10.171	9.963	9.642	9.534	8.827	9.102	9.222	9.413

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra

Zein da, beraz, Eusko Jaurlaritzak benetan gastatzeko duen zenbatekoaren bilakaera, **zorraren** ordaina **kenduta**? 2009an 10.171 milioi euro izan ziren (BPGd-aren %15,3), eta 2016an 9.413 milioi izango dira (BPGd-aren %13,1), hots, 758 milioi gutxiago. Beraz, Jaurlaritzak datorren urtean bere ardurapeko arloetan (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, etab.) 2009an baino 758 milioi gutxiago gastatuko du. 1. grafikoak erakusten du gastu publikoaren jaitsiera zorraren ondorioz askoz handiagoa dela (zorra bi lerroen arteko tartean islatzen da).

1. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOIA ZORRA AINTZAT HARTUTA ETA ZORRA ALDE BATERA UTZITA (BPGd %) 2009-2016




Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Horrenbestez, **zorraren ordainak Jaurlaritzaren guztirako gastuan duen pisua ere asko hazi da**, 2009ko %0,8tik 2016ko %11,1ra. Hots, 2016an Jaurlaritzaren gastuaren %11tik gora zor publikoa ordaintzeko erabiliko da.

Azken urteetan metatu den zorraren igoerak eragin du **zor bizia (gobernuaren guztirako zorraren zenbatekoa)** kontutan izateko moduko mailara iritsi dela, 2. grafikoak erakusten duen legez. Zehazki, zor bizia 2009ko BPGd-aren %3,1etik 2011ko %6,44ra eta **2016ko %12,1**raino iritsi da. **Beraz, guztirako zorra 2016an 8.686,7 milioi euro** izango da, **2011ko bikoitza**, eta Jaurlaritzaren urteko gastutik gero eta gertuago.

2. GRAFIKOA: EUSKO JAURLARITZAREN ZOR PUBLIKOA GUZTIRA (milioi euro) ETA ERLATIBOKI (BPGarekiko) 2011-2016



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Agintarien argudiorik ohikoena izaten da azken urteetan zor publikoa hazi dela gizarte-gastua gehitu behar izan delako. Baina hori ez da egia.


4. DIRU-SARRERA URRIAGOAK, BEHARRIZAN SOZIALA HANDIAGOA DEN ARREN

Ikusi dugunez, Eusko Jaurlaritzaren zorra ez da gehitu gizarte-gastua handiagoa delako (izatez, hau murriztu egin da). Zorra hazteko benetako arrazoia izan da foru-ogasunek biltzen duten diru kopurua asko jaitsi dela, aplikatu duten zerga-politika injustuaren ondorioz.

2008ko ekitaldian bildu zen diru kopurua mantendu balitz (%19,02), 2016ra bitartean, metatuta, 7.371,6 milioi euro gehiago izango ziren. Halere, egindako zerga-jaitsierak medio, Eusko Jaurlaritzaren zorra itxuragabe puztu da eta orain, ordaindu behar delarik, gobernuak gizarte-gastua murrizten du. 2014-2016 ekitaldietarako bilduko den diru kopurua 2008ko sarreren parera iristen ari den arren, Eusko Jaurlaritza dagoeneko zorraren zurrunbiloan murgildu da.

3. grafikoan islatzen da itundutako zergekin bildutako diru kopuru absolutua (milioi eurotan) eta erlatiboa (BPGd-aren portzentajea); bada, ateratzen den ondorioa da EAeko itundutako zergekin bildutako kopurua 2008 eta 2009 bitartean zeharo murriztu zela (%15,9, hots, BPGd-arekiko 2,3 puntu gutxiago); hortik aurrera bere onera etortzen hasi zen, apurka baina ez modu jarraituan: 2010eko gorakada handiaren ostean, 2012ra bitartean jaitsiera izan zen; urte horretatik aurrera bildu den guztirako diru kopurua eta efektiboa hazi egin da, eta 2015ean hurbildu egin da 2008an izandako mailara. Haatik, itundutako zergen presio fiskala (%18,84) oraindik ere 2008koa baino txikiagoa da (%19,02), zeharkako zergetan (BEZ, hidrokarburoak, etab.) behin eta berriz izan diren igoerak gorabehera.

3. GRAFIKOA: EAEN ZERGA ITUNDUEN BIDEZ LORTURIKO DIRU-SARRERAK GUZTIRA (milioi euro) ETA BPGarekiko (%) 2008-2016*



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, Finantzen Euskal Kontseilua

*2015 eta 2016ko datuak aurrikuspenak dira

Gainera, biltzen den dirua gero eta gehiago kontsumotik eta lan-errentetatik ateratzen da; aldiz, enpresetatik gero eta gutxiago biltzen da. Hots, langile-klaseak ematen du gehien ongizate-estatua elikatzeko diru-sarreretara, eta ekarpen hau hazkorra da. Aitzitik, enpresek eta kapital-errentek askoz ekarpen txikiagoa egiten dute, eta hau beherantz doa; hau guztia 4. taulan jaso da: bertan ikus daiteke PFEZaren ekarpena 2014 eta 2016 bitartean bi hamarren gehitu dela, eta BEZarena, berriz, 1,1 puntu; aldiz, jaitsi egin dira sozietateen gaineko zerga (7 hamarren), fabrikazio eta elektrizitatearen gaineko zerga bereziak (3 hamarren) eta gainerako zergak (3 hamarren). Azpimarratzekoa da zerga bereziekin bildutako sarrerarik handienak hidrokarburoetatik datozela (2015eko kopuruaren %61,5 eta 2016koen %62,2); honek ere langile-klaseari zama leporatzen dioelarik.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak bere 2016ko aurrekontu-proiektuan jaso dituen balioespenen arabera, datorren urtean EAEko Foru-Ogasunen sarreraren %75,8 PFEZ eta BEZetik etorriko dira, eta %8,7 baino ez Sozietateen gaineko Zergatik.

3. TAULA: ZERGA ITUNDUEN PISU PORTZENTUALA EAE-KO DIRU-BILKETAN 2014-2016*

(guztirako kopuruaren %)	2014	2015	2016
PFEZ	35,6	36,3	35,8
BEZ	38,9	39,6	40,0
Sozietateen gaineko Z.	9,4	8,7	8,7
Fabrikazio eta elektrizitate Z.B.	10,9	10,7	10,6
Besteak	5,2	4,7	4,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza

* 2015 eta 2016ko datuak aurreikuspenak dira;
2014koek, berriz, benetan bildutako zenbatekoa adierazten du.

2016rako aurreikusitako gastu fiskala aztertuz, zera ondorioztatu daiteke:

- 2016ko gastu fiskala 6.015 milioi eurokoa da ondorioz, bildu litekeen diru-kopuru potentzialaren %31,2 ez da ogasun publikoen kutxetan jasoko.
- 2015ean baino 430 milioi gehiago izango da. Politika hau ez da bidezkoa. ELAk politika publikoak gastuaren bitartez bultzatu behar direla defendatzen du, errenta baxuak kenketatik at gelditzen direlako.

Ondoren ikusiko dugunez, aldi berean gertatu dira zor publikoaren gehikuntza eta hainbat arlotako gastuan (osasuna, hezkuntza, etxebizitza) egin diren murrizketa handiak. Hots, Eusko Jaurlaritzaren zorra ez da gizarte-gastu handiagoaren ondorio izan (kontrara gertatu da), baizik zerga-politika injustu eta zilegitasun gabekoarena.

5. OSASUNeko GASTU TXIKIAGOAZ EUROPAko AZKEN POSTUETAN JARRAITZEN DUGU

Eusko Jaurlaritzak aurreikusi du 2016an osasungintzara 3.416 milioi euro bideratuko dituela, BPGd-aren %4,8, hots, 2009an baino 92,7 milioi gutxiago. Arlo honetarako 2009ko aberastasunaren portzentaje bera baliatuko balitz (BPGd-aren %5,3), 2016ko osasungintzako aurrekontua 377 milioi euro handiagoa litzateke.


4. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUNGINTZAKO GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA BPGd %) 2009-2016

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
3.508,9	3.542,3	3.415,8	3.365,4	3.300,0	3.342,4	3.406,8	3.416,2
%5,3	%5,2	%5,0	%5,0	%5,0	%5,0	%4,9	%4,8

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Alabaina, egia da 2015eko aurrekontuaren likidazio aurreikuspenaren arabera hasierako proiektukoak baino 16,3 milioi euro gehiago gastatzeko asmoa dagoela. Halere, ondoren Europa mailako datuak alderatuta, osasuneko gastu maila eskasa da, eta oro har gai sozioekonomikoetan alderatzeko erreferentzia gisa hartzen diren herrialdeekiko askoz apalagoa.

4. GRAFIKOA: GASTU PUBLIKOA OSASUNEAN (BPGd-aren %) 2013



Iturria: Eurostat, Eustat, Eusko Jaurlaritza

4. grafikoak erakusten du EAEko gastu publikoa txikienetakoa dela europar esparruan (dagoen informazioaren arabera, soilik Poloniak, Bulgariak, Errumaniak, Letoniak, Ziprek eta Suitzak bideratzen dute BPGd-aren portzentaje txikiagoa). Zehazki, 2013ko ekitaldian EAEn BPGd-aren %5 bideratu zen osasungintzara, hau da, EB-28ko herrialdeen batez besteko BPGd mailatik 2,2 puntu beherago (%7,2), edota 1.457,8 milioi euro gutxiago. Deigarria da baita espainiar Estatuak ere BPGd-aren zati handiagoa erabiltzen duela osasunerako: %6 2013an, hots, EAEn 664,9 milioi gehiago lirateke. Interesgarria da ere ikustea Greziak (%5,1) eta Portugalek (%6,7) BPGd-aren portzentaje handiagoa gastatzen dutela osasun sektorean.

6. HEZKUNTZAKO GASTU ESKASA, EUROPAKO BIGARREN OKERRENA

2016ko aurrekontuetan hezkuntzarako jaso den gastua 2.602,7 milioi euro izango da, BPGd-aren %3,6 alegia; ondorioz:

- Gastua BPGd-ko 0,7 puntu txikiagoa da, **450 milioi gutxiago**. Partida hau kopuru absolututan 221,7 milioi euro gutxitu da 2009tik hona.
- 2015eko itxiera aurreikuspenaren aldean, 2016rako aurrekontuan 20,5 milioi euro eta BPGd-aren 0,2 puntu gutxiago jaso dira.
- 2015erako onartu zen aurrekontuak 2.561,8 milioi euroko gastua aurreikusten zuen, hots, BPGd-aren %3,7 gutxiago; likidazio aurreikuspenean, aldiz, kopuru hau 61,4 milioi eurotan gehitu da, baina honek ez du Europa mailan dugun kokapen negargarria hobetuko.

5. TAULA: EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA HEZKUNTZAN (MILIOI € ETA BPGd %) 2009-2016


2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
2.824,1	2.783,6	2.715,6	2.625,1	2.462,1	2.578,1	2.623,2	2.602,7
%4,3	%4,1	%4,%	%3,9	%3,7	%3,9	%3,8	%3,6

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

() 2013ko ekitaldian Hezkuntza Sailaren egitura aldatu egin zen, bere barne hartu baitzuen Hizkuntz-
Politika eta Kultura. Seriearen bilakaera homogenea aztertu ahal izateko, ekitaldi hauetarako sail horiei
zegozkien partidak kendu dira.*

Hezkuntzako gastu publikoaren beheranzko joerak areagotu egiten du Europan dugun defizita. 2013ko ekitaldian EB28an batez beste BPGd-aren %5 bideratu zen hezkuntzako gastu publikora, hots, EAEn baino 1,3 puntu gehiago. EB28ko ahalegin bera eginez gero, Eusko Jaurlaritzak egindako gastua baino **841,9 milioi gehiago jarri beharko zituzkeen**. Honekiko ere deigarria da orain arte espainiar Estatuan (BPGd-aren %4) EAEko administrazioak baino gastu handiagoa izatea hezkuntzan (2013ko ekitaldian 181,1 milioi euro gehiago lirateke). Hezkuntzaren finantzazio publikoari dagokionez BPGd-ko zatiaren arabera atzetik hasita bigarren lurraldea da EAE; atzean Errumania besterik ez dago, eta gailendu egiten dira Bulgaria, Grezia edota Hungaria.

5. GRAFIKOA: GASTU PUBLIKOA HEZKUNTZAN (BPGd-aren %) 2013




Iturria: Eurostat, Eustat, Eusko Jaurlaritzak

EAE mailara itzulita, 6. grafikoan ikus daiteke **Eusko Jaurlaritzaren hezkuntzarako gastua tarte guztietan jaitsi dela:**

- **Haur- eta lehen-hezkuntzarako** 903 milioi euro jarriko dira, BPGd-aren %1,26, hau da, 2009ko ekitaldiarekiko 286,8 milioi euro gutxiago.
- Aurrekontu-proiektuak 933,7 milioi euro aurreikusi ditu **bigarren hezkuntzarako eta Lanbide Heziketarako (LH)**, hots, BPGd-aren %1,3, edota 2009an baino 142 milioi euro gutxiago.
- **Unibertsitate** mailako heziketarako aurrekontua 310,9 milioi euro dira, hots, BPGd-aren %0,43, edota zazpi urte lehenago baino 87,7 milioi euro gutxiago.

6. GRAFIKOA: EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA HEZKUNTZA MAILAKA (BPGaren %) 2009-2016



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

7. ETXEBIZITZAKO GASTUA, GAINBEHERA

Etxebizitza sailak 108,9 milioi euroko aurrekontua du, 2009tik hona izan duen txikienetakoa (izan ere, azken hirurtekoan izan dira epealdiko kopururik txikienak). 2009ko kopurua erdira jaitsi da, orduko BPGd-aren %0,33tik 2016ko %0,15eraino, edota **126,1 milioi euro gutxiago**. Beraz, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzan egin zuen ahaleginari eutsi balio, sail honen gastua orain 235 milioi eurotan legoke.

6. TAULA: EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA ETXEBIZITZAN (MILIOI € ETA BPGd %) 2009-2016

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
217,4	182,6	123,0	146,2	125,65	107,1	102,5	108,9
%0,33	%0,27	%0,18	%0,22	%0,19	%0,16	%0,15	%0,15

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

8. EUSKARA SUSTATZEKO DIRU GUTXIAGO, ETA AURREIKUSITAKO ZENBATEKOAK BEHIN ERE EZ DIRA AGORTU

Euskara, gure herriko hizkuntza, ez dagoenez normalizatuta eta herritar guztiek ezagutzen ez dutelako desabantaila egoera argian dago. Bada, euskara sustatzeko partida ere ez da salbuespena eta murrizten ari dira: 2016an 104,4 milioi euroko gastua aurreikusten da, hots, BPGd-aren %0,146.

2009ko aurrekontuetan 123,7 milioi jarri ziren (BPGd-aren %0,187), baina ordutik hona euskararen sustapenerako zenbatekoak zeharo urritu dira: urtero-urtero, partida honetarako kopuruak EAEn sortutako balioarekiko pisua galdu du.

Bestalde, arazo bakarra ez da aurrekontuetako partida honek aberastasunean gero eta zati txikiagoa izatea; gainera, aurreikusitako funtsak ez dira agortzen. Hau gertatzen da borondate politikorik ez dagoelako, edo beste beharrian batzuei lehentasuna ematen zaielako... Kontua da 2009 eta 2014 bitartean hizkuntza sustatzeko baliabideetatik %76,5 baino ez direla erabili; gainerako %23,5a beste arlo batzuetara desbideratu delarik.

9. GIZARTERATZE ETA KONTZILIAZIO GUTXIAGO

2014ko Beharrian Sozialen Inkestak adierazten du EAEn pobrezia asko gehitu dela. Esaterako, **benetako ongizaterik ez duten** pertsonak 2014an 248.000 lirateke, hots, **2008an baino %41 gehiago**, edota biztanleriaren %11,5.

Inkesta berak adierazten du **pobrezian jausteko arriskua duen biztanleria**, prestazioen sistemara sarbiderik gabea, gehitu egin dela. Honek agerian uzten du gero eta **behartsu gehiago** dagoela **gizarte-babesekeko sistematik baztertuta**.

Zer egiten du Eusko Jaurlaritzak drama sozial honen aurrean? 2016ko aurrekontu-proiektuan honakoa jasotzen da:

- Aurten ere prestazio ekonomiko guztiak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) barne, %7 murriztuta mantenduko ditu.

- Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetara (GLL) 22 milioi euro bideratuko dira; honela 2015eko kopuru bera mantenduko da, beharizan sozialak handiagoak badira ere. Erabaki hau aldatu ezean, GLLetarako aurrekontua 7/8 hilabeteren buruan agortuko da, eta ondoren sortzen diren beharrak ez dira aintzat hartuko.
- DBE eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriko 461 milioi euro bideratu dira aurrekontu-proiektuan.

Agerikoa da gizarte-prestazioen zenbatekoa hobetu beharra dagoela, eta aintzat hartu behar direla gaur prestazio horiek jaso ezinik geratzen diren kolektiboak.

Kontziliazioko laguntzetarako zenbatekoa ere %7 murriztu da, eta eskubidea ez denez, kobratzerakoan berandutze handiak gertatu dira, aurrekontua txikiegia delako. 2016rako aurrekontu-proiektuak zenbatekoari eutsi egiten dio, partida hauetara 31,2 milioi euro bideratzen baititu, 2015eko kopuru berbera.

Honelako erabakiekin zer uzten du Eusko Jaurlaritzak agerian? Bere kontziliazio-politika diskurtso hutsa dela, aurrekontuan ez baitu benetan babesten. Bestalde, haurrak eta adineko jendea zaintzeko estaldurarik ere ez dagoela kontutan izanik, egoera benetan iluna da.

10. AHT, MURRIZTEN EZ DEN BAKARRA

2016ko ekitaldirako AHTra bideratuko den kopurua 350,5 milioi euro dira; Eusko Jaurlaritzak diru hori azpiegitura eraikitzeke aurreratu egingo du, baina espainiar gobernuak aurrerago itzuli egingo dio. Zenbatekoa BPGd-aren %0,49 da, hots, 2009 urtearekiko 273,3 milioi euro gehiago. Beraz, AHT salbuespena litzateke gai guztietan ezarritako murrizketei dagokienez.

7. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA ESPAINIAR GOBERNUAREN GASTUA AHT ERAIKITZEKO (MILIOI € ETA BPGd %). 2009-2016

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Gastua AHT	71,5	187,1	247,4	376,8	362,3	226,9	232,4	350,5
BPGd %	%0,11	%0,28	%0,36	%0,56	%0,55	%0,34	%0,34	%0,49

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

11. ONDORIOAK

2009 eta 2016ko ekitaldien bitartean Eusko Jaurlaritzaren gastua zor publikoan 1.086,5 milioi euro hazi da. Epealdi berean, osasungintzan (92,7 milioi), hezkuntzan (221,4 milioi) eta etxebizitzan (108,5 milioi) egindako murrizketak guztira 422,6 milioi euro izan dira. Halaber, gizarte-prestazio guztien zenbatekoa %7 jaitsi da. Datuek agerian uzten dute Jaurlaritzak saldu nahi duen gezurra, hots, ez dela murrizketarik ezartzen. Bai, ezartzen dira, eta gainera osasun- zein hezkuntza-sistema publikoaren kalitatearen kaltetan, eta pobrezia zein babesgabezia soziala hedatzen ari dira.

Zorra horrela gehitu ez balitz, 1.086,5 milioi euro horiei esker ez zen murrizketarik egin behar izango, eta areago, gizarte-estaldurak hobetzeko aukera izango zatekeen.

Eusko Jaurlaritzaren zorra baliabide publikoak urritu izanaren ondorio da, eta hau aplikatu den zerga-politika injustuaren fruitu da:

- Ogasunen sarrerak azken urteetan erori egin dira, iruzur fiskala ontzat eman duen zerga-politika ezarri delako; politika honek pribilegiozko tratu injustua eman die errenta altuei, enpresen eta kapitalaren errentei.
- Foru Ogasunek 2016an 6.015 milioi euro gutxiago bilduko dute gastu fiskalen ondorioz; honek esan nahi du zerga-arintze, salbuespen eta antzekoak aplikatuko ez balira (hauen progresibotasuna zalantzakoa delarik) Ogasun publikoek gastu fiskalagatik jasotzen ez den %31,2 hori lortuko lukete.

Beraz, baliabide publikoen gabezia, gizarte-gastuan ezarritako gastuak bezala, hautu politiko baten ondorio dira, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko Foru Aldundiek egin duten hautua.

Posizio politiko hau are larriagoa da egungoaren moduko egoera ekonomikoan, zeinetan presio fiskal eta gizarte-gastu handiagoa inoiz baino premiazkoagoak diren.

Horrenbestez, ezinbestekoa da aurrekontu- eta zerga-politika goitik behera aldatzea. Gero eta ageriago ari da geratzen zorraren zilegitasunari eta bera itzultzeari buruzko hausnarketa beharrezkoa dela.